

## BERGARAKO UDALAREN ETA OLASO DORREA FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Bergaran, 2022ko maiatzaren 25ean, ondorengoak

### BILDU DIRA

Alde batetik, GORKA ARTOLA ALBERDI, alkatea den aldetik, Bergarako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz. Helbidea: San Martin Agirre kalea 1, IFK: P2007900J

Eta bestetik, Urko Aiartza Azurtza jauna, Olaso Dorrea Fundazioaren zuzendari eta ordezkari gisa. Fundazio horrek Bergaran du egoitza, San Pedro kale 2 zenbakian duena, eta IFZ-.20076741

### ADIERAZTEN DUTE

Erakunde sinatzaileen elkarlanerako borondatea, Aranzadi zientzia elkartearen jabetzakoa den "*Amaiur. Memoria Demokratikoa*" izeneko erakusketa Laboratorium museoan ikusgai jartzeko.

Ondorioz, agertutakoek elkarri beren mandatugileak ordezkatzeko nahikoa ahalmen aitortzen diote, bai eta beren burua behartzeko gaitasun juridikoa ere, eta konpromisoa hartzen dute, bakoitzaren interesak honako hauekin bat etor daitezen:

### ITUNA

#### 1.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da Olaso Dorrea fundazioaren eta Bergarako Udalaren arteko lankidetzaren arautzea, goian esandako erakusketa Bergarako Laboratorium Museoan erakusteko. Horretarako, Olaso Dorrea fundazioak hura osatzen duen materialaren lagapen prozedura bideratuko du erakusketaren jabearekin Laboratoriumen aldi batean ikus dadin, honako egutegi honen arabera:

- Erakusketaren muntaia: 2022ko ekainaren 14, 15, 16a eta 17a.
- Erakusketaren iraupena: 2022ko ekainaren 20tik irailaren 11era.
- Erakusketa desmuntatzea eta erakutsitako elementuak bueltatzea: 2022ko irailaren 12tik aurrera. Irailaren 26rako, egun hau barne, erakusketa bere jabeari itzulita egon beharko da.



## 2.- Bergarako Udalak hartzen dituen konpromisoak:

- Bergarako Udalak konpromisoa hartzen du erakusketa Laboratoriumen ikusgai jartzeko, 2022ko ekainaren 20tik irailaren 11ra bitartean, kostu ekonomikoaren %70a ordaintzea. Aurrekontua gehienez ere 8.000€koa izango da. Beraz, udalak gehienez 5.600 euro ordainduko ditu. Fakturak Aranzadi zientzia elkarteak bidaliko ditu, dagokion zatia Bergarako udalaren izenean eta beste bat Olaso Dorrearen izenean.
- Utzitako elementuak bueltatzea, utzi zirenean zeuden egoera berean. Horretarako, garraiatu, muntatu, erakutsi, desmuntatu eta itzultzean erakusketa osatzen duten elementuek eta materialek jasan ditzaketen kalteak estaltzeko beharrezkoak diren aseguru-polizak kontratatzea. Horretarako, Aranzadi zientzia elkarteak piezen balorazioa bidaliko dio Bergarako Udalari.
- Erakusketaren inaugurazio ekitaldiaren antolatzea.

## 3.- Olaso Dorrea Fundazioak hartzen dituen konpromisoak:

- Erakusketaren mailegu prozedura tramitatzea.
- Laboratoriumen erakusketa ikusgai jartzearen kostu ekonomikoaren %30a ordaintzea eta gehienez 2.400 euro.

## 5.- Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen hau sinatzen den egunetik erakusketa desmuntatu eta erakusketa jabeari entregatzen zaion arte egongo da indarrean, eta, nolana ere, bi aldeek konpromisoak amaitu arte. Hasieran aurreikusitako indarraldia gorabehera, hitzarmena alde aurretik suntsiarazi ahal izango da, bi aldeek hala adosten badute edo aldeetako edozeinek hartutako betebeharrak betetzen ez baditu.

## 6.- Hedapena

Bi aldeek egokitzat jotzen duten zabalkundea egin ahal izango dute hitzarmen honen bidez araututako lankidetzaren bidez, alde aurretik bakoitzak bere irudi korporatiboan eta zeinu bereizgarrien erabilera egokiari buruzko onespina emanda.

Bi aldeek gutxienez baldintza berdinetan jardungo dute, erakusketa ezagutarazteko antolatu daitezkeen aurkezpen publikoetan eta prentsaurrekoetan.

## 7.- Datu pertsonalen tratamendua

Bergarako Udalak Olaso Dorrea Fundazioari hitzarmen honen xede den programari buruz ematen dizkion datu edo informazio guztiak bereizitako datuak izango dira; hau da, pertsona fisikoak identifikatzeko aukerarik ematen ez dutenak eta, beraz, datuak babesteko araudiaren aplikaziotik kanpo daudenak.



A handwritten signature in blue ink, consisting of several overlapping loops and lines, positioned to the right of the official stamp.

Aurrekoari kalterik egin gabe, Udalak biltzen dituen datu pertsonalak bere erantzukizunekoak izango dira, eta udalak tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, eta Olaso Dorrea Fundazioari inolako erantzukizunik, kalte-ordainik eta/edo zehapenik gabe eutsiko dio.

#### 8.- Aldez aurretik suntsiarazteko arrazoiak

Hitzarmen hau aldez aurretik suntsiarazteko arrazoiak hauek izango dira:

- Aldeetako batek klausularen bat ez betetzea.
- Bi aldeak ados jartzea.
- Betetzea eragozten duten legezko edo erregelamenduzko xedapenak indarrean jartzea.

Hitzartutako aldi baterako lagapena eskueran jarri baino lehen suntsiarazten bada hitzarmen hau, ez da entregatuko hitzarmena suntsiarazten den egunetik aurrera.

Begarako Udalari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta hitzarmena suntsiarazten bada, Bergarako Udalak bueltatu egin beharko ditu, bere kasuan aurrez emandako kopuruak, ez badira hitzarmenerako gaitarako erabili. Horrek ez du eragotziko, hala badagokio, kalte-galeren ordaina jasotzea.

#### 9.- Lagapena

Hitzarmen honek sinatzen duten bi aldeen artean bakarrik izango ditu ondorioak, eta aldeetako batek ezin izango du osorik edo zati batean laga, beste aldearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

#### 10.- Aplikatu beharreko legeria

Hitzarmen hau aplikagarri den Espainiako legediaren arabera interpretatuko da.

Hitzarmen honen interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaidak bi aldeen artean erabakiko dira. Akordiorik ezean, Donostiako administrazioarekiko auzien ordenako organoak izango dira eskudunak.

Eta hitzartutakoa jasota gera dadin, aldeek dokumentu honen hiru ale sinatu dituzte, ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Gorka Artola Alberdi  
BERGARAKO ALKATEA



Urko Aiertza Azurtza  
OLASO DORREA FUNDAZIOA



